

UDALTOP 2012 talde-lana

Hizkuntza-politika periferiatik erdigunera eta erdigunetik sail guztietara eramateko dekalogo bateratua eta talde-lan bakoitzean osatutako 10 dekalogoak.

DEKALOGO BATERATUA

Politikarien hizkuntza lidergoa, inplikazioa: Gobernu taldeak euskara bere egitea, **agintariak hizkuntza lider** izatea eta bere jardunean horri tinko eustea lortu behar da. Horretarako, ordezkari **politikoei trebakuntza** eskaini behar zaie - autozentramendua, jabekuntza, lidergoa, lider-kateak, etab.-: politikariak prestatu/hezi eta aliantzak bilatu.

Sailen arteko elkar aitortza, udalaren arlo guztien arteko elkarlana -botere horizontala- bilatu; **sail desberdinetako lankideekin autozentramendua, jabekuntza eta lidergo eraldatzailea landu; liderrak identifikatu eta aliatu bihurtu lider-kateak osatuz;** euren arteko elkarlana eta koordinazioa bilatu sail arteko batzordeak osatuz; hizkuntza politikaren **sailez saileko autogestioa** -eurek diseinatu eta garatu- bideratu.

Herriko elkarteekin elkarlana eta parte hartzea bideratu behar da, **beraien beharretatik abiatuta** hizkuntza politika denon egiteko bihurtuz; baliabide bat lan-mahaiak izango dira.

Hizkuntza irizpide zehatzak onartu eta arduradun zuzenak izendatu, zabaldu, betetze mailaren jarraipena egin -erabilera neurtu- eta errealitatera egokitzen joan.

Euskararen gaia **erakundearen kalitatea kudeatzeko prozesuetan txertatzea.**

Informazio eta komunikazio plan egokiak martxan jarri, barrura (sailen artekoa zein agintari politikoei zuzendua) zein kanpora begira.

Herritarren eskaera aktibatu, **herritarrak aliatu** bihurtu.

Hizkuntza teknikarion ezagutza findu prestakuntzaren bidez -autozentramendu, jabekuntza, lidergo eraldatzaile, etab.-.

Hizkuntza teknikariaren **rola birdefinitu**: dinamizatzaile, katalizatzaile, sarea egiten duena, konplizidadeak lortzen dituena.

Erdigunea izatea ezin da inoiz helburutzat hartu, zehar-lerrotasunera abiatzeko aurrepausua da.

Talde-lanean sortutako 10 dekalogoak:

1. taldea; gela Abalotz; dinamizatzailea: Arantxa Iturri -Gipuzkoako Foru Aldundia-

Sailen arteko lankidetzeta

Akordio politikoa

Euskara kalitatea kudeatzeko prozesuetan txertatzea

Euskara teknikariaren rola: dinamizatzaile, katalizatzaile, sarea egiten duena, konplizidadeak lortzen dituena

Zeharlerro guztiak batera lantzea; zeharlerrotasun-batzordea osatzea

Babes juridikoa

Elkarlana: herritar eragile guztien, udaleko politikarien eta teknikarien artean

Giroa sortzea: langileen arteko elkarlana, motibazioa eta inplikazioa bultzatzea

Aliantzak bilatzea

Erantzukizun banandua bultzatzea, arloetako arduradunen erantzukizun eginez (ez euskara teknikariarena soilik)

2. taldea; gela: Antxota; dinamizatzailea: Izaro Ugalde -Gipuzkoako Foru Aldundia-

Elkar aitortza, arlo guztien artekoa. Bilera interdistiplinarioak egitea, egoera osotasunean ikusteko parada izateko, sorkuntzarako egokiak izango direlakoan. Hartara, proiektuen arkitektura berria sortuko genuke eta integritasuna, aldi berean.

Politikarien eta langileen hizkuntza lidergoa autozentratu, helburuak eta datak zehaztuz.

Zehar-lerrotasuna: sail bakoitzeko arduradunak bere egitea euskararen erabileraren ardura. Langileek asimilatuko dute bere egiteko alegia.

Komunikazioa: askotan langileei esan egiten diegu gauzak nola egin, baina ez zergatia. Estrategia honen helburua litzateke gure eskaeren zergaitia azaltzea eta horren sistematizazioa bilatzea, protokolo bat zehaztea, alegia.

Elkarlana bideratzea herriko elkarteekin udalean egiten diren gauzen berri izan dezaten, lan-mahaiak antolatuz. Hartara, udaleko langileak gehiago inplikatuko dira eta politikarien konpromisoa lortuko dugu.

Jabekuntza dinamikak bai politikariekin bai langileekin.

Erabilera batzordeak zuzendaritzaka antolatzea: lan-talde horien arduraduna, gainera, zerbitzu-burua izatea eta ekintzak erabakitzeko ardura izateko aukera izatea.

Euskara kultura kontuetatik bereiztea. Bere lekua bilatzea udalean. Eduki modura udalak jabekuntza hori barneratzea.

3. taldea; gela: Burunzpe; dinamizatzailea: Marije Manterola -Udal<>ekin-

Lidergoa aktibatu politikari eta langileen artean; horretarako hizkuntza politikaren inguruko formazioa eskaini: autozentramendua, bertatik eta bertakoa; jabeakuntza etab.

Akordioak eta alituak bilatu udal langile, ordezkari, herritar, eragilea...; elkarrekin lan egiteko sarea eraiki, emozioak kudeatu eta lanean eroso aritu.

Teknikariok autozentramendua eta jabeakuntza landu

Teknikariok komunikazio asertiboan hezi, jarrerak nola kudeatu ikasi, autoestimua eta gorputza landu

Eskualde mailako funtzionamendua bultzatu

Informazioa eta komunikazioa zabaldu

4. taldea; gela: Erribera; dinamizatzailea: Mikel Azkarate -Gipuzkoako Foru Aldundia-

Arduradunen hizkuntza lidergoa landu

Hizkuntza irizpide zehatzak onartu, banatu eta errealitatera egokitzen joan

Erakundeko arloen arteko mahai teknikoak osatu

Parte hartzeko prozesuak landu, bai erakundean eta bai udalerrinari begira

Komunikazio estrategia zehaztu

Langileen motibazioa landu

Herritarren eskaera aktibatu

Hizkuntza sentsibilizazioa landu

5. taldea; gela: Gonagorri; dinamizatzailea: Amaia Balda -Udal<>ekin-

Autogestioa: arlo bakoitzak hartzea bere arduratzat normalizazio plana. Eurek diseinatzea eta garatzea

Normalizazioan lan egingo duen laguntzaile-sarea osatzea (bakoitzak bere sailean eragiteko eta eragina biderkatzeko)

Komunikazioa eta koordinazio sarea hainbat mailatan: sailen artean, arduradun politikoeekin eta erakundetik kanpo.

Elkartrukea: beste lurraldeetan egiten dena erakutsi.

Zeharkakotasuna, departamentuen arteko batzordeak osatzea, elkarlana bideratzea langileen artean.

Borondate politiko garbia. Politikarein lidergoa, lidergo hori langilegoari transmititzeko gauza izatea.

Malgu, baina tinko!

Arduradun politikoen jabeakuntza.

Motibazio politiko eta langileen motibazioa.

Zuzendaritza guztiek normalkuntza prozesuarekin bat egitea.

Diskurtsoa lantzea (orain arteko ahalegina ikusarazi...)

6. taldea; gela: Muntteri; dinamizatzailea: Nekane Jauregi -Gipuzkoako Foru Aldundia-

Arduradun politikoen inplikazioa, babesa eta hizkuntz koherentzia lortu

Lidergoa eraldatzeko, agintari politikoak eta langileak prestatu eta aktibatu

Pelma izatetik ekina izatera pasa, mezu positiboak erabiliz

Komunikazio plan egoki bat egin, barrura begira eta kanpora begira

Langileen babesa bultzatu, saretu, trinkotu eta eragina zabaldu

Erakundeko atal edo sail bakoitzak euskara planaren autogestioa egin

Euskararen gaia erakundearen funtzionamenduan txertatu eta sistematizatu, espedienteen kudeaketarako aplikazioa baliatuz

Zeharlerrotasuna aldebikoa izan dadin eta elkar eraikuntza bultzatzeko, zehar lerroko beste gaiak gurera ekarri

Jendartearen demanda aktibatu, herritarrak aliatu

7. taldea; gela: Osña; dinamizatzailea: Josu Lartategi -Eudel-

Lidergo eraldatzailea garatzea diagnostiko on baten ondoren; agintari zein teknikarien arteko lidergo-kateak bideratzea, aliatuak edo konplizeak identifikatu, elkar ezagutu, zehar-lerrotasunean sakondu (guk haiena gureganatu!!!)... normalizazioa=abangoardia; parte-hartzea lidergoarekin lotuta; lider-kateak sortzea

Harremanen kudeaketa erakundetzea, arauak eta giza-harremanak uztartuz. Langileen motibazioan eragin, harreman ez formalak ere kudeatuz.

Parte-hartzea: politikarien inplikazioa esplizitatu eta zehaztu, eredugarria da; eragile eta eraginduen parte-hartzea bermatzeko metodologiak bultzatu.

Hizkuntza-politikaren definizioa

Ardurak banatzea

Euskara, zerbitzu bateko atala barik, funtzio komunikatiboa lukeen alkatetzaren menpeko izatea

Euskara-teknikarien ezagutzan sakontzea eta hizkuntza-politikako aditu bihurtzea.

8. taldea; gela: Oztaran; dinamizatzailea: Aitor Unanue -Lasarte-Oria-

Erdiguneak berak konpromisoak hartu behar ditu, eta erabakitakoa bete. Erdigunea eredu izanik, sail guztietatik bere egin behar dute hizkuntza-politika. Sail bakoitzak lan euskaraz egin dezan, trebakuntza eta aholkularitza ezinbestekoa da. Lan egiteko modu berriak ezagutu behar ditugu, elkarlanean aritzeko.

Zuzenean euskararen zentratu gabe zerbitzari publikoaren irudia indartu eta bete gai batzuekin (lan egiteko modu batzuekin) uztartuta.

Funtsezko urratsetarako ezinbestekoa da babes politikoaren indargunea. Osagarri erabakigarria: kargu politikoek beren ereduz erakusta bidea, sinesgarri izateko. Eredugarritasuna eta koherentzia, azken batean. Arduradun politikariak euskararekin autozentratuak egotea ezinbestekoa da.

Erdigunea izatea ezin da inoiz helburutzat hartu. Izan ere, erdigunea zehar-lerrotasunera abiatzeko puntua da, inflexio puntutzat hartu behar dugu, prozesu oso baten puntu edo egoera zehatza. Ezin abiatu hizkuntza-politika politikoak edo arduradunak autozentratutik ez badaude.

Erdigunetik sail guztietara joateko, langileak euskalduntzeaz eta motibazioa sortzeaz gain, ezinbestekoa da herritarrek euskararen beharra sentiaraztea.

Oinarritik hasitako prozesu parte-hartzailea abiatu beharko litzateke. Hizkuntza ohiturak aldatzea beharrezkoa da eta, beraz, beste eremuetatik jaso beharreko informazio, iritzi eta errealtateei garrantzi berezia eman behar zaie.

Gizarte mailako eta herri mailako euskararen ikuspegia mugituko duen autozentramendua bultzatu, gero euskararen ildoetara erakartzeko iritzi publikoa.

Jabekuntza prozesuak abian jarri (talde-lana, elkarlana...), plan horizontalak eginez eta parte-hartzea bultzatuz, eta arlo bakoitzak bere plana egiteko ardura hartuko luke.

Eralaneko eta Pasaiaiko esperientziak oso egokiak dira.

9. taldea; gela: Saltsate; dinamizatzailea: Marifer Gorostiza -Lasarte-Oria-

Erakundea <---> herri ekimena

Eraginkortasuna

Erabilera plana

Beka laguntza bat sortu

Adostasun politikoak + langileak + Euskarako zerbitzua

Zain egon gabe, hai zehar lerroa lantzen

Hizkuntza politika ---> zehar lerrotasuna

Aliatuak aurkitu: udal barruan zein kanpoan

10. taldea; gela: Urbitarte; dinamizatzailea: Mariaje Sanchez -Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-

Ezinbestekoa da erakundean **parte-hartze dinamika** ezartzea. Horretarako, aldiro batzarrak egitea, "gogo-jardunak"...

Politikoen inplikazioa bilatu behar da: Gobernu taldeak euskara bere egitea eta bere jardunean horri tinko eustea lortu behar da. Horretarako, ordezkari **politikoei trebakuntza** eskaini behar zaie: politikariak prestatu/hezi egin behar dira eta euren artean koordinatu, beraiek ere askotan ez baitakite zer egin behar den.

Botere horizontalaren kontzeptua aintzat hartu beharra dago. Lidergoa landu, hizkuntza ohiturak finkatzeko: **liderrak identifikatu** eta aliatu bihurtu. Euren arteko elkarlana eta koordinazioa sustatu.

Aliatua bilatu (politikoak eta teknikoak) eta mezu positiboak helarazi, **ilusioa** piztu. Harreman pertsonalak landu behar dira euskal ataletik kanpo dauden langileekin sinergiak bilatzeko.

Sail desberdinetako zuzendari eta teknikariek harremanak bideratzea beraiek hizkuntza normalizazioaren eragile direla eta euskara bere eginkizuna dela. Zerbitzu edo **sail bakoitzean arduradun bat** izendatu, hizkuntza politikaren ordezkari izateko eta arduradun horiek trebatu.

Sailen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatu. Helburuak eta **ardurak** egoki **banatu**. **Konfiantza**, harrotasuna sustatu.

Euskara teknikariok ikasi egin behar dugu orain arte guk bideratu ditugun **programak askatzen**.

Oinarriak jari (juridikoki?) "naturala" zeharlerrotasuna izan dadin, hauteskundeetan atzerapausorik ez gertatzeko.

Euskara hutsean funtzionatzeko guneak aztertzen joan: bi hizkuntzetatik -->euskarara.

Bikain ziurtagiria eskuratu eta gero urtero neurtu.